

ARTEA. Akademizismoa bazter utzi eta estilo propioa garatu zuen abangoardiak ezagututa

Edurne Elizondo | IRUÑEA

Rafael Zabaleta margolariaren erakusketa antologikoa zintzilikatu dute Iruñeko Castillo de Maya aretoan, otsailaren 17a bitarte. Andaluziako Quesada herria izan zuen jaioterri Zabaletak, eta hango udalaren ardurara da artistaren obra gordetzea eta zaintzea. Iruñera ekarritakoa bilduma osoaren lagin bat besterik ez da.

Herriarekin, lurrarekin eta herritarrekin, hain zuzen ere, harreman handia izan zuen beti Rafael Zabaletaren pinturak. Nekazal giroko bere margoak dira harreman horren adierazgarri eta esanguratsu bere obra guztien artean.

Zabaletaren artelanak artistaren garapena erakusten du, argi eta garbi. Hasierako akademizismoa laster utzi zuen bazter eta estilo propioa eta pertsonala garatu zuen. Picassorekin izandako harremanak kubismoaren ukitua utzi zuen Zabaletaren obretan baina, ildo guztien gainera, espresionismoarena nabarmendu zen artista andaluziarraren lanetan.

Zabaletaren espresionismoa ere ez zen beti berdina izan. 36ko gerraren ondoko obretan kolore ilunak eta antzeko giroak nagusitzen dira; ondorengo lanetan, berriz, kolore biziz bete ziren Zabaletaren mihiseak.

1960. urtean bihotzekoak jota 52 urterekin zendu zen arte pintura izan zen Zabaletaren lagunik onena. Txikitzen piztu zitzaion zaletasuna eta amari maindireak lapurtzen zizkion bere margoak egiteko.

Madrilgo San Fernando Arte Ederretako Akademian egin zituen ikasketak, eta, handik, Parisera abiatu zen abangoardiak ezagutzera. Hurbilekoa izan zuen beti abiapuntu bere margoak osatzeko: herria, herriko



JOXE LACALLE
Castillo de Maya aretoan ikusi ahal dira Rafael Zabaletaren lanak.

Rafael Zabaleta artistaren erakusketa antologikoa hartu du Castillo de Mayak

Margolari andaluziarraren espresionismoaren lagin bat dira Iruñeko areto horretan zintzilikatu dituzten olio-pinturak

jendea, familia eta bere eremu pribatua irudikatu zituen bere olio-pinturetan.

Zabaletaren lanen inguruko eztabaida

«XX. mendeko artista handien artean handienetako bat da Rafael Zabaleta», erran zuen Quesadako alkate Manuel Valle jok erakusketaren aurkezpenean. Hori dela eta, «Zabaletaren lana ezagutzera eman beharra» dagoela azpimarratu zuen. Asmo horren ondorio da egu-

notan Iruñean ikusi ahal den erakusketa.

Zabaletaren obra Quesada herritik ateratzeko erabakia hartzea, dena den, ez da erraza izan, 1960. urtean Zabaletaren oinordekoek artistaren obra Quesadako Udalaren esku utzi zutenean lanak herritik ez mugitzeko baldintza jarri zutelako. Udalak, ordea, iazko ekainean egindako osoko bilkuran Iruñeko bezalako erakusketak presartzeari ekitea erabaki zuten, «Zabaletak merezi duelako».

Ondorioz, bizirik diren zortzi oinordekoetatik hiruk epaitegitara jo zuten auzia argitzeko eta erabaki horren zain dira bi aldeak.

Bitartean, Rafael Zabaletaren bilduma hartuko duen museo berri bat egiteko proiektua onartu du Quesadako Udalak, egun zabalik dena nahikoa ez delako. Denera, artista andaluziarraren 114 olio-pintura, hamaika urmargo eta 500 marrazkitik gora gordetzen ditu Quesadako museoak.

MUSIKA

Itsasaldeko orkestrak Martinez eta Shumannen obrak joko ditu

Erredakzioa | BAIONA

Bihar arratsaldeko seietan Miarrizteko Gare du Midra joanen da Baionako Itsasaldeko orkestra. Bertan, Robert Shumann konpositorearen musika du joko. Shumannek bere andreari idatzi zion *La mineur* obra dute eskainiko; ezkondu ondorengo lehen urtean pianorako idatzi zuen konposizioa hain zuzen.

Horrez gain, Xavier Delettek zuzendutako orkestrak Sofia Martinez konpositore gazteiztarraren obra bat eskainiko du. Parisen ikasitakoa da Martinez eta gaur egun Erroman bizi da. Delettek arabera, «bere idazkera jada oso landua eta dirdiratsua da, perkusio anitz erabiltzen ditu». Itsasaldeko orkestrak interpretatuko duen Sofia Martinezen obrak hamar bat minutu irauten du eta Vincent Barthekek zuzenduko du.

Schumann eta Sofia Martinez egitarau berean jartzea nahita egindako erabakia izan dela azaldu du Delettek. «Ez dut bereizketarik egiten erreperatorioko obren eta gaur egungo obren artean. Zer da garaikidea eta zer ez? Musika garaia gainera dago. Gure orkestrak obra modernoak jo ohitu ditu. Jendearengan kuriositatea piztu nahi dugu eta ohitura sortu».

Bihar (Egunkaria) **Xingola**

Euskal meatzaritza azalera
Ekorgari euskaldunaren ibilerak Argentinan
Frantziako ginekologoaren auzia

Bargotako Aztiaren itzulera
Bargotako Aztia: herriaren oroimenean bizirik
Usoaren 14. alea: Bi aurkikuntza
Belardo eta Panttupiak komikiak
Denborapasak...

...zure independentzia